

opusdei.org

Bikario Berria Euskalerrian

Jorge Nava da izendatua

2018 Eka 25

Rafael Salvador-en ordeaz, orain
zortzi urte izendatua.

Jorge Nava Garcia (Madril, 1958),
Fernando Ocariz-ek, Opus Deiko
Prelatuak, prelatutzaren delegazioko
bikario Iruñean izendatu du. Barruti
honen barruan Nafarroa eta Euskadi
sartzen dira.

Madrileko Unibertsitate Autonomoan
Zuzenbidean lizentziatua eta
Nafarroako Unibertsitatean
Zuzenbide Kanonikoan doktore,
Jorge Navak 2010ean izendatua izan
zen Rafael Salvador ordezkatzeko du.
Hau Nafarroan geratuko da apaiz-
lanetan.

Jorge Navak etapa hau “ilusioz”
aurrera eramango duela dio, eta
“Frantzisko Aita Santuak mundu
osoan ematen ari den ebanjelizazio
bultzadari laguntzeko gogoz”. Bere
ustez, Aita Santuak aipatzen duen
“Eliza irteeran” horrek eskatzen
duena da pertsona eta erakunde
kristauak guztiei atera behar zaiela
bidera, agian gazteei eta familiei
bereziki.

Nafarroan emandako lehen
egunetan, bikario berriak gotzainen
batzuk bisitatu ditu eta prelatutzako
pertsonak sustatuak diren hezkuntza
eta sorospen erakunde batzuk

zuzenean ezagutu ditu. Datorren 26an, san Josemaria hil zeneko (1975) urteurrenean, Opus Deiren eta Nafarroako Unibertsitatearen Fundatzaile izan zenaren ohorean, urtero bezala, ospatuko den mezaren buru izango da, zentro akademiko horren kiroldegian.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/bikario-berria-
euskalerrian/](https://opusdei.org/eu-es/article/bikario-berria-euskalerrian/) (2026 Mar 10)